

ARIKETAK

1 Irakurri arretaz zinpeko aitopen hau eta saiatu beste era batera idazten. Horretarako honako hauek izan behar dituzu gogoan:

- ▶ Izenburua: bikoitza.
- ▶ Datu pertsonalak: zerrenda moduan bildu, eta beharrezko datu guztiak idatzi.
- ▶ Atalak ondo bereizi: aitopen-egilea, aitopena, bukaera.



Baitzako Udala

Baitzako Udalez kanpoko diru-laguntzarik
jaso ez izanaren zinpeko aitopena

Nik, (e)k,
..... NAN zenbakia duenak,
..... kalendar eta
herrian bizi denak, telefonoa eta
..... posta elektronikoa duenak zinpean aitortzen dut
ez dudala Baitzako Udalez kanpoko dirulaguntzarik jaso, ez 2005/6 ikas-
turtean euskara ikasteagatik, ez 2005/6 ikasturtean udalaren kirol ekital-
dietan parte hartzeagatik.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Baitza, 2006ko.....(a)ren (a)

A R I K E T A K

2

Berridazketak: aditza

1. Ama lau seme-alabekin ihesi joan zen frankisten mehatxua ikusita.
_____ eman _____.
2. Frantziak desegokitzat jotzen du euskarak Europan erabilera ofiziala izatea.
_____ izateari.
3. Gobernuz kanpoko 40 erakunde baino gehiagoren laguntza jaso zuen *Bakearen alde: Ikerketa militarrik ez* kanpainak.
_____ lagundu _____.
4. Eginkizun horrek ez nau batere beldurtzen, ardurarekin gehiago gozaten dut eta.
_____ diot _____.
5. Hainbat lekukok azpimarratu zuten gizona oso berandu arte egon zela emakumearen zain.
_____ itxaron _____.
6. Eskizofrenikoek, askotan, gehien maite dutena gorrotatzen dute gehien, eta liskar handiak izaten dira zenbait etxetan.
_____ diote _____.
7. Akusatua bera negarrez hasi zen emaztearen hilotza etxeko atarian ikusitakoan.
_____ zion _____.
8. Hegazkinak, tankeak eta artilleria unitateak erabiliz etsaiei erasotzeko agindua jaso zuten soldaduek.
_____ eraso _____.
9. Bota iezaiozu begiratu bat ume horri kanpoan gauden bitartean!
Begiratu _____.
10. Has gaitezen benetako helburuak zehazten, itzulinguruka ibili beharrean!
Ekin _____.

3

Zuzena edo egokiena aukeratu:

1. a) Haurrak **bat-batean** hiltzen direnean eta medikua heriotzaren zergatia argitzeko gai ez denean, SIDS edo Haurren **Bat-bateko** Heriotzaren Sindromeak jota hil direla esan ohi dute.
b) Haurrak **bapatean** hiltzen direnean eta medikua heriotzaren zergatia argitzeko gai ez denean, SIDS edo Haurren **Bapateko** Heriotzaren Sindromeak jota hil direla esan ohi dute.
2. a) Foru Aldundiak lagundurik, 60tik 20 gazte bizkaitarren lanak aukeratu dituzte **herriz-herri** erakusteko.
b) Foru Aldundiak lagundurik, 60tik 20 gazte bizkaitarren lanak aukeratu dituzte **herriz herri** erakusteko.
3. a) Ifoizekiko Elkartasuna taldeko kideak **ezeptiko** samarrak izan dira beti justiziarekiko.
b) Ifoizekiko Elkartasuna taldeko kideak **eszeptiko** samarrak izan dira beti justiziarekiko.

A R I K E T A K

4. a) Hiztunaren jarduera, **diziplina** multzo bat kontuan hartua aztertu behar da, eta **diziplina** horiek, hizkuntzarekin duten erlazioarengatik soilik dute lekua linguistikan.
b) Hiztunaren jarduera, **disziplina** multzo bat kontuan hartua aztertu behar da, eta **disziplina** horiek, hizkuntzarekin duten erlazioarengatik soilik dute lekua linguistikan.
5. a) **Idatzarazi** egin zizkidan, ez ahazteko, erosketen zerrenda balitz bezala.
b) **Idatzarazi** egin zizkidan, ez ahazteko, erosketen zerrenda balitz bezala.
6. a) Haurra eskolara bidaltzen duzu gero, eta, eskola amaiturik, ohartzen zara bizitzan beharbada inoiz behar-ko ez duen gauza mordo bat **ikasarazi** diozula.
b) Haurra eskolara bidaltzen duzu gero, eta, eskola amaiturik, ohartzen zara bizitzan beharbada inoiz behar-ko ez duen gauza mordo bat **ikastarazi** diozula.
7. a) Den-dena **kontarazi** zidan, asper-asper agin arte.
b) Den-dena **kontatuarazi** zidan, asper-asper agin arte.
8. a) Garoña «beste Txernobil bat» bilaka litekeela **ohartarazi** dute ekologistek.
b) Garoña «beste Txernobil bat» bilaka litekeela **oharrarazi** dute ekologistek.
9. a) Udatiarrak hasiak omen dira **nondinahi** agertzen, oraingoz madrildarrak gehiago paristarrak baino, Hugori sinestekotan.
b) Udatiarrak hasiak omen dira **nondik nahi** agertzen, oraingoz madrildarrak gehiago paristarrak baino, Hugori sinestekotan.
10. a) Ohore egiten nion **noiz-nahi** eta **nonnahi**: ohean, basoan, bainugelak, ganbaran, hondartzan...
b) Ohore egiten nion **noiznahi** eta **nonahi**: ohean, basoan, bainugelak, ganbaran, hondartzan...



Bi aukeretatik bakarra da zuzena:

1. a) Falujako operazioaren ondoren erresistentziako kideak Ramadin ezkutatu **direlaren** susmoa dute orain okupazio indarrek.
b) Falujako operazioaren ondoren erresistentziako kideak Ramadin ezkutatu **direlako** susmoa dute orain okupazio indarrek.
2. a) Finantza publikoak hobetuko **direnaren** itzaropena du Europako Batzordeak.
b) Finantza publikoak hobetuko **diren** itzaropena du Europako Batzordeak.
3. a) Lehen ekitaldian lau eskualdek hartu zuten parte, eta datorren urtean zazpi ariko **direneko** esperantza dute.
b) Lehen ekitaldian lau eskualdek hartu zuten parte, eta datorren urtean zazpi ariko **direlako** esperantza dute.
4. a) Esportazioak **indartzeko asmoz**, EAEko 24 enpresa Marokora joango dira.
b) Esportazioak **indartu asmoz**, EAEko 24 enpresa Marokora joango dira.
5. a) Azterketaren lehenengo partea gainditzen duenak **ez ditu arazorik izango** bigarrena gainditzeko.
b) Azterketaren lehenengo partea gainditzen duenak **ez du arazorik izango** bigarrena gainditzeko.
6. a) Alderdiak **bi urtetik behin** egiten duen batzarra da gaur hasi eta hilaren 19ra arte Pekinen egingo dena.
b) Alderdiak **bi urtero** egiten duen batzarra da gaur hasi eta hilaren 19ra arte Pekinen egingo dena.
7. a) **Irakaslea eta ikaslearen** arteko harremana okerrera joan da ikasturtearen bukaeran.
b) **Irakasle eta ikaslearen** arteko harremana okerrera joan da ikasturtearen bukaeran.
8. a) **Nitaz eta zutaz** ez dute ezer txarrik esan.
b) **Ni eta zutaz** ez dute ezer txarrik esan.
9. a) **Hau guztia** nazioartearen axolagabekeriagatik ari da gertatzen.
b) **Guzti hau** nazioartearen axolagabekeriagatik ari da gertatzen.
10. a) Urte **hauetan guztietan** harreman onak, hobeak eta txarrak ere bizi izan ditu.
b) Urte **guzti hauetan** harreman onak, hobeak eta txarrak ere bizi izan ditu.

1

ZINPEKO AITORPENA

 **Baitzako Udala**

Baitzako Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jaso ez izana

AITORPEN-EGILEAREN DATUAK¹

Izen-abizenak NAN:

Kalea Herria PK:

Telefonoa Posta elektronikoa

AITORPENA

Zinpean aitortzen dut ez dudala Baitzako Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jaso honakoengatik:

- 2005/6 ikasturtean euskara ikasteagatik.
- 2005/6 ikasturtean udalaren kirol ekitaldietan parte hartzeagatik.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.



Baitza, 2006ko (a)ren (a)

¹Agiri honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira. Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan jasotako eskubideak erabiltzeko, Baitzako Udalarekin jar zaitzake harremanetan: k/ Bargagain 15, 31999 Baitza.

2

1. Amak lau seme-alabekin ihesari eman zion frankisten mehatxua ikusita.
2. Frantziak desegoki deritzo euskarak Europan erabilera ofiziala izateari.
3. Gobernuz kanpoko 40 erakundek baino gehiagok lagundu zuten *Bakearen alde: Ikerketa militarrik* ez kanpaina.
Gobernuz kanpoko 40 erakundek baino gehiagok lagundu zioten *Bakearen alde: Ikerketa militarrik* ez kanpainari.
4. Eginkizun horri ez diot batere beldurrik, ardurarekin gehiago gozatzen dut eta.
5. Hainbat lekukok azpimarratu zuten gizonak oso berandu arte itxaron ziola emakumeari.
6. Eskizofrenikoek, askotan, gehien maite dutenari gorroto diote gehien, eta liskar handiak izaten dira zenbait etxetan.
7. Akusatua berak negarrari eman zion emaztearen hilotza etxeko atarian ikusitakoan.
8. Hegazkinak, tankeak eta artilleria unitateak erabiliz etsaiei eraso diezaieten agindua jaso zuten soldaduek.
9. Begiratu ezazu ume hori kanpoan gauden bitartean!
10. Ekin diezaiogun benetako helburuak zehazteari, itzulinguruka ibili beharrean!

3

- | | |
|------|-------|
| 1. a | 6. a |
| 2. b | 7. a |
| 3. b | 8. a |
| 4. a | 9. a |
| 5. b | 10. b |

4

- | | |
|------|-------|
| 1. b | 6. a |
| 2. b | 7. b |
| 3. b | 8. a |
| 4. a | 9. a |
| 5. b | 10. a |